

Espite. Kodea : 2025T0060001

ALKATETZAREN DEKRETUA

IKUSIRIK Euskara Batzordeko lehendakariaren proposamena, zeinaren bidez Burunzpe Guraso Elkartearekin 2025-26 ikasturtean elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatzea proposatzen duela, Sasoeta-Zumaburu ikastetxean ondoko programa hauek gauzatzeagatik emango zaion subentzioa arautuko duena:

- Gurasoentzako euskarazko eskolak; Euskarazko aldizkarien irakurketa; Eskolako egutegia; Gu ere bertsotan; Arantzako aterpean egonaldiak; Hezitzaileek asko egin dezakete, Hitz eta pitz egitasmoa.

Ikusirik euskara-zerbitzuko teknikariaren 2025eko abuztuaren 19ko Burunzpe elkartearekin Sasoeta-Zumaburu ikastetxean 2025-2026 ikasturtean egitasmoak garatzeko dirulaguntza kudeatzeko hitzarmena sinatzeari buruzko txostena, zeinaren bidez adierazten baita hitzarmen hori sinatzea egokia dela eta beharrezkoa den dokumentazioa zuzen dagoela.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzeko 7/1985 Lege apirilaren 2koak 21. Artikuluan ematen dizkidan atribuzioen bertutez.

EBATZI DUT:

LEHENENGOA. BURUNZPE GURASO ELKARTEAri (IFK: G20609921) 20.108 euroko zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea, 1.6000.48101.335.10 aurrekontu-aplikazioaren kontura.

BIGARRENA. Zuzeneko emakidako hitzarmena formalizatzea, hura emateko, ordaintzeko eta justifikatzeko baldintzak arautzen dituen.

HIRUGARRENA. Hitzarmena udalaren webgunean (Gardentasuna) eta BDNSn argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 8 c) artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55 h) artikulua eta DLOren 18.3 artikulua betetzeko.

LAUGARRENA. Onuradunari jakinaraztea.

BOSGARRENA. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri aurretik, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean aurka egin ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, egokitze jotzen den beste edozein gorabehera.

Hala ebazten eta sinatzen dut, Lasarte-Orian sinadura digitalaren datan.

